

Teresa Calo 23:29 ✓✓

Aurkituko  
zaitut

23:32 ✓✓

ALBERDANIA

Teresa Calo 23:29 ✓✓

Aurkituko  
zaitut

23:32 ✓✓

ALBERDANIA



## AURKITUKO ZAITUT

Lehen argitaraldia: 2021eko azaroa

*Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntza  
izan du liburu honek.*

© 2021, Teresa Calo

© Itzulpenarena: 2021, Mitxel Murua Irigoien

© Argitaraldi honena: 2021, **ALBERDANIA, SL**

Istillaga, 2, behe C - 20304 Irun

Tel.: 943 63 28 14

[alberdania@alberdania.net](mailto:alberdania@alberdania.net)

[www.alberdania.net](http://www.alberdania.net)

Azala: Concetta Probanza.

Inprimatzailea: Ulzama (Uharte, Nafarroa)

ISBN digitala: 978-84-9868-706-4

ISBN papera: 978-84-9868-705-7

Legezko gordailua: D. 1456/2021

Teresa Calo 23:29 ✓✓

Aurkituko  
zaitut

23:32 ✓✓

ITZULPENA  
MITXEL MURUA

ALBERDANIA  
ERRIA TXIKOTA!

AUTO GORRI BAT autobidean doa. Furgoneta batek aurea hartu dio, lerro jarraia zapalduz, eta hutsagatik ez du autoa jo.

-Kabroia! Astapotro burumotza!

-Zer dugu orain?

-Ez al duzu ikusi? Nola, ba? Zuk ez duzu ezer ikusten eta... Pasadazu ura, faborez.

-Egon.

-Utzi mugikorra eta pasa ura, bale?

Eiderrek amorruez utzi du sakelako telefonoa, eta zakar samar eman dio botila ura gidariari. Gidaria ama da.

-Ireki, faborez.

-Zer? Orain zure neskamea al naiz?

-Gidatzen ari naiz, zer nahi duzu bazterra jotzea edo?

Eiderrek tapoia kendu dio botilari, eta Begori luzatu dio atzera. Amak trago bat eman, eta botila itzuli dio alabari. Neskak bere mugikorreko pantailan josiak ditu begiak.

-Hartuko al duzu botila eta gordeko al duzu bere tokian?!

-Bale! Baina ez niri garrasirik egin!

Begok arnasa sakon hartu du. Ama eta alaba isilik egon dira segundo batzuetan.

Eiderren mugikorreko pantailan whatsapp bat ageri da, idatzi berria: «Erantzun, faborez, Blanca, nerbioetatik jartzen ari naiz». Mezua bidali, eta hasperen egin du.

-Pixagurarik bai?

-Ez.

-Nik, bai. Gelditu egingo gara.

-Ja! Kafea eta zigarroa!

-Ba, bai. Eta? Zerbait esatekorik, bai?

-Nik? Ezer ez, niregatik baita zera egiten baduzu ere...

-Zer?

-Ezer ez. Zuk segi erretzen, zuretzako kalte.

-Horretan arrazoi duzu. Ba al zatoz?

-Ez. Autoan egongo naiz.

-Bero handiegia egiten du; irten, mesedez.

Eider gogo txarrez irten da autotik. Amaren atzetik doa, pare bat metrora edo. Bego gelditu egin da, alabaren zain.

-Horrela egon behar al duzu denbora guztian?

-Horrela, nola?

-Muturtuta, protestaka...

-Nork egin du protesta? Autora igo garenetik nik ez dut txintik ere esan.

-Horregatik, ba! Ez da batere atsegina zure muturroko hori ikustea, Eider, badirudi mataderiara zaramatzadala.

-Ia-ia.

-Noiztik ez zaizu herria gustatzen?

Eiderren mugikorrak abisu-hots bat egin du, whatsapp bat sartu dela adieraziz. Neskak begiratu egin du, amaren galderari ez entzunarena eginez. Bego lehertu egin da.

-Utziko al duzu behingoz segapoto madarikatu hori eta erantzungo al didazu ganoraz?

-Ez! Inportantea da. Itxoin pixka batean!

Begok arnasa sakon hartu, eta zigarro-pakete bat atera du poltsatik. Alabari begiratu dio.

Neskaren mugikorraren pantailan Blancaren mezu bat: «Okupatuta nago».

Eiderrek amorruz gorde du mugikorra, «Kaka zaharra zuretzat!» ernegatuta esanda.

-Eider!

-Ez dut zuregatik esan, bale?

-Badakit... besterik ez genuen behar!

Eider negargurari eutsiz dabilela konturatu da Bego. Ahots tonua leundu du.

-Berri txarrak?

Eiderrek sorbaldak goratu ditu.

-Blancari deitu al diozu?

-Mezu bat bidali diot.

-Eta? Zer gertatzen zaio?

-Ez dakit, baina nitaz paso egiten duela ematen du.